

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ZIGOITIKO UDALA

2025eko Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zerga ordaindu behar dutenen errolda jendaurrean jartzea eta zerga bilketarako aldia

Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergaren errolda, 2025ekoa, egin denez gero, jendaurrean jartzen da, interesdunek egoki derizteten erreklamazioak aurkeztu ahal izan ditzaten. Horretarako hamabost egun baliiodun izango dituzte iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Halaber, interesdunek udaletxeko idazkaritzan izango dituzte eskueran erroldok, jendea hartzeko orduetan.

Halaber, zerga ondoko epeetan kobratuko dela iragartzen da:

I. Ordaintzeko epea.

A) Araututako epea: 2025eko martxoaren 1etik apirilaren 30ra.

B) Betearazpen epea: 2025eko maiatzaren 1etik aurrera betearazpen epeari emango zaio hasiera, eta betearazte-errekarguak, premiamenduzkoak eta ohiko premiamenduzkoak ordaindu beharko dira Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arauaren 28 artikulua adierazitako epeetan.

II. Ordaintzeko lekua eta modua.

A) Bankuetan helbideratutako ordainketak: aurreko urteetan ere ordainketa banku bidez egin dutenek ez dute inolako izapiderik egin beharko, baldin eta zerga helbideratuta zeukaten kontua oraindik ere indarrean badute. Horrelakoetan, udala arduratuko da ordainketa bideratzeaz.

B) Helbideratu gabeko ordainketak: ordainketa helbideratuta ez dutenek araututako epean ordaindu beharko dute udal bulegoan, astelehenetik ostiralera 9:00etatik 14:00etara, kreditu txartelarekin. Era berean, eraginkorra egin dezakete "nire ordainketa" ordainketa-pasabidearen bidez (www.zigoitia.eus) edo Kutxabank eta Laboral Kutxaren entitate laguntzaileen bulegoetan ordainketa-dokumentua aurkeztuz.

III. Aholkuak.

Banku helbideratzeetan altarik edo aldaketarik egon bada edo interesduna etxebizitzaz aldatu bada, Zigoitiko Udalari jakinaraziko zaio, hurrengo batean jakinarazpenak egin ahal izateko.

Denek jakin dezaten ematen da aditzera.

Ondategin, 2025eko otsailaren 10ean

Alkatea

JAVIER GORBEÑA GARCÍA